

PASAIAKO
hizkuntza-erabileraren
kale-neurketa, 2015

-emaitzen txostena-

Andoain, 2016ko urtarrila



AURKIBIDEA

SARRERA	1
1. METODOLOGIA	1
1.1 Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren metodologia	2
1.2 "Pasaia, 2015" neurketaren fitxa teknikoa	5
1.3 Laginaren osaera	8
2. ERABILERA PASAIAN, 2015. URTEAN: EMAITZA OROKORRA	13
2.1 Hamar elkarrizketetatik bi euskaraz Pasaian	13
2.2 Behatutako erabilera testuinguratzeko bi datu garrantzitsu: herritarren hizkuntza-gaitasuna eta hortik espero daitekeen erabilera maila	14
2.3 Euskararen erabilera Pasaian, hizkuntza-gaitasuna eta espero daitekeen erabilera aintzat hartuta	17
3. ERABILERAREN BILAKAERA PASAIAN (1991-2015)	19
3.1 Euskararen erabilera egonkor mantendu da Pasaian azken hiru urteotan	19
3.2 Erabileraren eta ezagutzaren bilakaerak	22
3.3 Hizkuntza-gaitasunaren eta euskararen erabileraren bilakaera alderatua	23
4. EUSKAL HERRIKO, EAEKO, HERRIALDEKO DATUEKIKO ALDERAKETA ETA INGURUKO BESTE HERRI BATEKIN ALDERAKETA	25
4.1 Euskal Herriko, EAEko, Gipuzkoako, Donostialdeako eta Pasaiaiko datuekiko alderaketa	25
4.2 Hizkuntza-gaitasuna, kaleko erabilera eta espero daitekeen erabilera, Euskal Herriko, EAEko, Gipuzkoako, Donostialdeako eta Pasaiaiko datuekiko alderaketa	26
4.3 Inguruko hainbat herrirekiko alderaketa	28
4.4 Kaleko erabileraren bilakaeren alderaketa	29
5. ZONALDEKAKO EMAITZAK	32
5.1 Zonaldeen araberako emaitzak	32
5.2 Zonaldeen araberako bilakaera	33
6. HIZTUNEN EZAUGARRIEN ARABERAKO DATUAK	35
6.1 Sexuaren araberako emaitzak	35
6.2 Sexuaren araberako bilakaera	36
6.3 Adinaren araberako emaitzak	37
6.4 Adinaren araberako erabileraren bilakaera	39
7. EUSKARAREN ERABILERA ETA HAURREN PRESENTZIA	41
7.1 Haurren presentziaren araberako euskararen erabilera	41
7.2 Erabilera eta haurren presentzia: bilakaera	43
8. NEURRALDIEN EMAITZAK	45
9. DATU NAGUSIEN IRAKURKETA (LABURPENA)	47



SARRERA

Euskararen egoera nolakoa den deskribatzeko garaian, askotan jotzen dugu gure iritzia ematera. Ezagutzarik ez izateak dakar modu subjektiboaren erabilera hori eta horregatik, gero eta garrantzitsuagoa zaigu egoera horren berri emango diguten datuak eskuartean izatea balorazioetan objektibotasuna lortzeko. Hala, datu horien bila ekin nahian, herriko euskararen errealitatea adierazteko funtsezkoa da kalean zenbat euskara erabiltzen den jakitea. Izan ere, soziolinguistika arloko eskarmentuak erakutsia digu erabilera dela hizkuntza baten egoeraren adierazle esanguratsuena eta fidagarriena.

Hizkuntza erabiltzea gizakion jardun arrunt ohikoa da. Nonahi, noiznahi, baliatzen dugu hizkuntza. Giza izaeraren bereizgarria da. Ez da jarduera arautua eta patroji jakinei obeditzen diena. Horrenbestez, erabilera hori neurtzea ariketa konplexua da eta metodologia findua eskatzen du. Helburu horri erantzuteko asmoz, sortu eta garatu dugu hizkuntza-erabilera neurtzeko metodologia.

Kale erabileraren neurketaren metodologia horri esker, abantaila handiak lortzen dira herriko errealitatera hurbiltzeko eta beraz, funtsezkoa bihurtzen da herri mailan hizkuntza-errealitatea ezagutu edota planifikatu nahi duen edonorentzat. Batetik, lehen aipatu moduan, objektibotasuna lortzen dugu herriko errealitate soziolinguistikoaz aritzerako garaian. Gainera, herriko hizkuntza-egoera ezagutzeko beste hainbat datu badaude ere (eroldako ezagutza datuak, ikastetxe eta euskaltegi-tako matrikulazio datuak...), datu horiek guztiak herriko kaleetan entzun daitekeen eguneroko jardunean nabarmentzen dira. Bestalde, ohikoa izaten da baliabide urriak edukitzea euskararen aldeko sustapen plan bat egiterakoan eta horrek premiarik handiena duten eremuak zein diren jakin behar izatera eramaten gaitu lehentasunak ezartzeko.

Ondorioz, kale neurketen emaitzak beharrezko bihurtzen dira lehentasun horiek ezartzeko edota datu xeheagoak eskuratze aldera. Izan ere, hainbat erabilera datu eskura ditzakegu neurketaren bidez, adin talde bakoitzak kalean euskara zenbat erabiltzen duen, besteak beste. Era berean, neurketa hauek maiztasun batekin eginez gero (bi urtez behin, bost urtez behin...), bilakaera ezagutu ahal izango dugu, eta modu horretan herrian izaten diren hizkuntza-aldaketak gertutik jarraitzea ahalbidetuko liguke.



1.METODOLOGIA

1.1 Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren metodologia

Pasaian egindako kale-neurketaren metodologia Euskal Herriko Hizkuntza-erabileraren Neurketan garaturikoan oinarritua dago. Hurrengo atal batean azalduko diren fitxa teknikoko moldaketak soilik egin behar izan dira metodologia herriko berezitasunetara egokitzeko.

Hizkuntza-erabileraren Euskal Herriko Kale-Neurketa 1989. urtean egin zen lehen aldiz, eta geroztik sei alditan errepikatu da: 1993an, 1997an, 2001ean, 2006an, eta 2011n. Azken neurketetan bezala, hemendik aurrerakoak ere bost urtean behin egingo dira (besteak beste, erroldako datuekin bateratze aldera). Dagoeneko hogeita bost bat urteko esperientzia metatuta, metodologia aski frogatua eta kontrastatua dugu eta erreparorik gabe esan dezakegu, gaur egun, euskararen egoera zertan den ezagutzeko ezinbesteko erreferentzia bilakatu direla datu horiek.

Kale-neurketan erabiltzen den teknika behaketa zuzena da; hau da, ezertxo ere galdetu gabe, neurtzaileek herriko kaleetan zehar topatzen duten jendeak darabilen hizkuntza jasotzen da. Hala, bere helburua praktikan hizkuntza bakoitza erabiltzearen ekintzak zenbateko maiztasun erreala duen kontrolatzea da. Izan ere, teknika honen abantaila azpimarragarrietakoa neurtzaileek hiztunaren joera naturala jasotzen dutela litzateke datuen subjektibotasuna saihestuz eta emaitza fidagarriagoak lortuz.

Landa-lana

Landa-lana behar bezala egiteko, diseinu teknikoaren fasean beharrezkoa da aurrez bi datu zehaztea: ibilbidea eta neurraldiak, hain zuzen ere. Alde batetik, beraz, herriko kalerik jendetsuenak biltzea irizpide nagusizat hartuz (plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa kaleak, eta abar.) neuru beharrezko kale horiek finkaturiko ibilbidea(k) definitzen d(ir)a. Bestalde, neurketarako egun eta orduak zehaztu behar dira, helburu nagusia herriko biztanle guztiak (potentzialki behintzat) neurtzea izanik. Nolabait ere, hautatutako egun eta orduetan herritar guztiak esatistikoki neurtuak izateko aukera bildu nahi da neurraldien eta ibilbideen diseinuarekin.

Elkarrizketa-hizkuntza

Oinarrizko behaketa-unitatea taldeko elkarrizketa-hizkuntza da, ez dugu norbanakoaren hizkuntza neurtzen. Beraz, ezinbestean, bi lagun edo gehiagoren arteko elkarrizketak dira zenbatzen direnak. Dena den, egia da bakarrizketa gisa ere jasotzen ditugula elkarrizketa mota batzuk: adibidez, mugikorreko elkarrizketen kasua daukagu, non hitzun bakarra jasoz biltzen den elkarrizketa telefonoz beste aldera dagoena ez dugulako ikusten. Bestalde, egia da normalean soilik bat edo bi lagun entzuteko denbora izaten dela. Beraz, taldeko elkarrizketa-hizkuntza definitzerakoan, une horretan hizketan ari denaren hizkuntza hartzen dugu kontuan talde osoarentzat.

Azkenik, gerta daiteke pertsona batek hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea bere jardunean. Kasu horietan, hizkuntza nagusia jasotzen dugu, gehien erabiltzen duena alegia.

Fitxak

Neurketetan erabilera datuak biltzeko fitxa bakarra erabiltzen dugu. Material honen bidez, hitzunen ezaugarriak jasotzeko aukera ematen digu aldagai horiek hizkuntza-erabileran suposatzen duten baldintzapenaren neurri bat ateratzea ahalbidetuz. Hala, erabilera zenbatekoa den jakiteaz gain, hiru aldagai hauek euskararen erabilera duten eragina neurtzeko aukera eskaintzen digu fitxak: sexua, haurren presentzia eta neurtu diren taldeen adin-osaketa.

Neurraldi guztietan erabiltzen da fitxa bera. Ikus ondoren fitxa horien irudiak:

The image shows two forms used for data collection. The left form is a header form titled "HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURTETA" (Language Use Calendar Measurement). It includes fields for "Sexua" (Gender), "Haurren presentzia" (Presence of children), and "Adin-osaketa" (Age group). Below these fields is a grid for recording data across multiple sessions. The right form is a similar grid, but with a different header structure, including a column for "Adin-osaketa" and a column for "Sexua".

3



“Pasaiatarren” erabilera baino gehiago, Pasaia kaleetako

Metodologia honek badu muga bat: ezin dugu ziurtatu kalean neurtzen ditugun hiztun guztiak herrikoak direnik. Horregatik, ez da egokia neurtutakoa herriko biztanleen erabilera dela esatea, neurtutakoa herriko kaleetan jaso dugun erabilera dela baizik. Dena den, kasu batzuetan herrikoen erabilerara hurbiltzen nabarmen kanpotarrak (turistak) direnen elkarrizketak aparte jasotzen ditugu.

Erabilera datuen neurketek bere zailtasuna ere badutela gogoan izan behar dugu, hizkuntza-erabilera aldakorra den heinean. Beraz, kontuan izan behar dugu datu adierazgarriak jasotzen baditugu ere, euskararen kale erabilera hori neurri txiki batean aldagarria dela. Honen arrazoia ulergarria da: kalean noiz norekin topo egingo dugun aurreikusi ezin daitekeenez, neurtzen ditugun hiztunak ez dira beti berdinak eta horrek herriko euskararen kale-erabileraren datua aldarazi dezake. Muga hori gainditzeko da, besteak beste, bereziki interesgarria maiztasun jakin batekin neurketak egin eta joera nagusiei erreparatzea. Hala eta guztiz ere, metodologia honek emaitzetatik zenbait ondorio orokor ateratzea bermatzen du.

Adierazgarritasuna

Datuen adierazgarritasuna bermatzeko, garrantzitsua da laginaren tamainari begiratzea, behatutako elkarrizketa kopuruari alegia. Are gehiago, aurrez aipaturiko hiru aldagaiek (sexua, adina eta haurren presentzia) euskararen kale erabileran duten eragina aztertzeke gutxieneko elkarrizketa kopuru bat bete behar izaten da adierazgarritasun hori lortzeko.

Zentzu horretan, aldagaia zenbat eta zehatzagoa izan (adin-taldeak sexuaren arabera bereizterakoan, adibidez), lagina txikiagoa bihurtzen da eta datuek adierazgarritasuna galtzen dute beharrezko elkarrizketak ez badira jaso. Hau da, aldagai guztiak aztertzeke, lagin garrantzitsu bat behar izaten da aldagai bat zenbat eta gehiago deskonposatu, lagin txikiagoa gelditzen baita. Horrela, adibideari erreferentzia eginez, gerta daiteke behatutako hiztunen adina taldeka banatzeko behar besteko lagina eskuratzea, baina adin-talde bakoitzean sexuaren araberako azterketa egiteko ez.



1.2 “Pasaia, 2015” neurketaren fitxa teknikoa

Prozedurak

Aurreko puntuan azaldutako metodologiako xehetasun guztiak baliagarriak dira *Pasaia*ko *hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren* berri emateko ere. Ez ditugu, hortaz, errepikatuko.

Ibilbideak

Arestian aurreratu dugun moduan, ibilbide bakoitzaren nondik norakoa zehazterakoan eta definitzerakoan, herriko kalerik jendetsuenak biltzea izan da irizpide nagusia: plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa-kaleak, eta abar. Ibilbidearekin batera, neurketa egiteko egunak eta orduak ere zehaztu ditugu, eta horiek hautatzean, herriko biztanle guztiak (potentzialki, behintzat) neurtu ahal izatea izan da gure helburua; alegia, hautatutako egun eta orduetan herritar guztiak edukitzea neurtuak izateko aukera.

Irizpide horiekin, 2015eko *Pasaia*ko *hizkuntza-erabileraren kale-neurketa* egiteko ibilbideak auzoka antolatu ditugu. Jarraian bildu ditugu zehatz-mehatz ibilbide bakoitzean neurtutako kaleak:

Antxo: Eskalantegi kalea Lizeoaren ikastolaraino (hango kirol gunea), bueltan hamarretxeta kaletik sartu, Axular plaza ingurua neurtu, azokako sarrera-irteerak eta kanpoaldea aztertu, Hamarretxeta kalean barrena jarraitu eta Biteri plazan sartu, handik Zumalakarregi kalera atera eta Gure Zumardira joan.

Donibane Meipi: Juan XXIII. kalean gora abiatu J.J.Otaegi plazara arte, ludotekako sarrera-irteerak eta ondoko parkea neurtu, frontoira jaitsi eta handik Lezo bide kalea hartu Meipi auzoa bukatzen den arteko errotondara arte. Buelta taxi paradaren eskuinera geratzen den haur parketik egin berriro ere Lezo bide kalera ateratzeko.

Donibane zaharra/Bonantza: Arizabalo jauregi inguruan hasi (Udaleko sarrera-irteerak) eta Donibane kalea hartuz Bonantzaraino iritsi. Kale bakar horretan atzera eta aurrera egitea da ibilbidea.

San Pedro zaharra: Frontoitik abiatuko gara Udal Aretorantz eta barruko kaletik (Pasaman alargunaren kaletik) herriko plazara iritsiko gara. Barrutik jarraituko dugu (San Pedro kaletik) Dorreko plazara atera arte. Buelta kanpoaldetik egingo da (Arraunlari kaletik) berriro ere frontoira iristeko (San Pedroko parroki aurretik pasaz, Erreka plaza eta Markina ingeniariaren kalea zeharkatuz).

San Pedro Pobladoa: Gudarien plazan hasiko dugu ibilbidea. Hemendik Serafin Esnaola plazara joango gara eta segidan Arrandegi kalea hartu eta Andonaegi jauregira hurbilduko gara (Musika eskolako sarrera-irteerak eta ondoko kirol-gunea). Handik aterata Terranoba kalea hartuko dugu eta Urrestarazu kalea hartu aurretik Gaztelekuak geldialdi bat egingo dugu (kanpokaldean gazteak egoten dira). Segi Urrestarazu kaletik, Farolako bidea hartu eta ezkerretara Pablo enea kalea. Bueltan Gran Soletik jaitsiko gara Ricardo Arrillaga kalea hartzeko; segidan Espinosa de los Monteros kalea igo eta Ludotekako sarrera-irteerak eta plazan egingo dugu geldialdia. Hemendik Daniel Castelao kalea hartuko dugu Ricardo Arrillaga kalea hartu eta jaitsi berriro Gudarien plazara.

Trintxerpe: Gudarien plazan hasiko dugu ibilbide hau eta Euskadi etorbidean gora (Donostia alderantz) egingo dugu. Kalearen bukaeran Azkuene kalean gora egingo dugu eskuinera Erreterria kalea hasten den arte. Hor buelta eman (Erreterria kalean sartu gabe) eta berriro atzerantz egingo dugu ibilbide bera.

Landa-lana

Landa-lanari dagokionez, 2015eko urriak 14a eta urriak 25a bitartean egin dugu, honako koadro honetan azaltzen diren neurraldietan eta ordutegietan:

Pasai Antxo	Urriak 14, asteazkena, 11:00-13:00	Donibane Meipi	Urriak 17, larunbata, 11:00-13:00
	Urriak 14, asteazkena, 18:00-20:00		Urriak 17, larunbata, 18:00-20:00
	Urriak 17, larunbata, 11:00-13:00		Urriak 18, igandea, 12:00-14:00
	Urriak 17, larunbata, 18:00-20:00		Urriak 21, asteazkena, 11:00-13:00
	Urriak 18, igandea, 12:00-14:00		Urriak 21, asteazkena, 18:00-20:00
San Pedro (Poblado)	Urriak 14, asteazkena, 11:00-13:00	Donibane Bonantza	Urriak 21, asteazkena, 11:00-13:00
	Urriak 14, asteazkena, 18:00-20:00		Urriak 21, asteazkena, 18:00-20:00
	Urriak 17, larunbata, 11:00-13:00		Urriak 24, larunbata, 11:00-13:00
	Urriak 17, larunbata, 18:00-20:00		Urriak 24, larunbata, 18:00-20:00
	Urriak 18, igandea, 12:00-14:00		Urriak 25, igandea, 12:00-14:00
San Pedro (Zaharra)	Urriak 14, asteazkena, 11:00-13:00	Trintxerpe	Urriak 21, asteazkena, 11:00-13:00
	Urriak 14, asteazkena, 18:00-20:00		Urriak 21, asteazkena, 18:00-20:00
	Urriak 17, larunbata, 11:00-13:00		Urriak 24, larunbata, 11:00-13:00
	Urriak 17, larunbata, 18:00-20:00		Urriak 24, larunbata, 18:00-20:00
	Urriak 18, igandea, 12:00-14:00		Urriak 25, igandea, 12:00-14:00
GUZTIRA: 60 orduko neurketa			



Unibertsoa, lagina eta emaitzen adierazgarritasuna

UNIBERTSOA: Pasaiko kaleetan entzun daitezkeen elkarrizketak.

LAGINA: behaketa egin dugun bitartean, behatu ditugun **4.011 elkarrizketek** eta horietan solaskide izan diren **10.846 herritarrek** osatu dute lagina¹.

AKATS-TARTEAREN KALKULUA (erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria): Akats-tartea bertakoen datuekin kalkulatu dugu. **±%0,91koa** elkarrizketen lagin osoarentzat, %95,0ko konfiantza mailan, eta $p=38,2$ izanik (behatutako bertakoen elkarrizketen artean euskarazkoek osatu duten ehunekoa).

1.3 Laginaren osaera

Behatutako 4.011 elkarrizketa eta horietan solaskide izan diren 10.846 herritarren ezaugarriak jakitea beharrezkoa zaigu unibertsoaren errepresentagarritasuna aztertzeko garaian. Hau da, gure azterketarako laginaren osaerari erreparatzea garrantzitsua da pasaiatarren ezaugarriak modu berean bildu ote ditugun jakiteko eta zer nolako akats tartea dugun jakiteko. Beraz, laginaren osaerari erreparatuz, azterketan egin dezakegun akats tartearen balorazio bat egingo dugu. Dena den, laginaren osaera eta pasaiatarren ezaugarrien alderaketa neurri batean da kontuan hartzekoa, izan ere, ez baita bere horretan gure helburua herritarren erabileraren argazkia ateratzea, baizik eta gure aztergai Pasaiko kaleetan entzuten den erabilera da. Kaleetan entzuten diren elkarrizketak ez dira soilik herritarren artekoak izaten, eta elkarrizketetan partehartzen duten pertsonak ez dute zertan herritarrek dituzten ezaugarri berberak izan beharrik.


Adin-tarte osaera

Batetik, lagina osatu duten hiztunen adinean jarriko dugu arreta, lehenengo grafikoan ikus daitekeenez. Lagineko hiztun gehienak 25-64 urte bitartekoak (%51,5) dira. Ondoren, 64 urtetik gorakoak (%23,8) eta 2-14 urte bitartekoak (%18,8) behatu ditugu gehien. Azkenik, 15-24 urte bitartekoak dira (%6,0) lagineko hiztun gutxienak. Beraz, jasotako elkarrizketa gehienak haur, gurasoen eta adinekoen artekoak izan direla ondoriozta dezakegu hiru adin-taldeko hiztunak batuz ia lagin osoa osatzen baitute (%94,1 hain zuzen ere).

¹ EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren Zentsuaren arabera 2011ean Pasaian 15.707 herritar bizi ziren.



1. GRAFIKOA: LAGINAREN ADIN-TARTE OSAERA. PASAIA, 2015 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Pasaiaiko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2015.

1. TAULA: LAGINAREN ADIN-TARTE OSAERA, UNIBERTSOAREKIN ALDERATUZ. PASAIA, 2011-2015

	LAGINA (2015)		UNIBERTSOA (2011)	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)
2-14 urte	2.034	18,8	1.750	11,1
15-24 urte	649	6,0	1.287	8,2
25-64 urte	5.584	51,5	9.072	57,8
>64 urte	2.579	23,8	3.598	22,9
GUZTIAK	10.846	100,0	15.707	100,0


Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Pasaiaiko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2015; eta unibertsoarako: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011

Laginaren eta unibertsoaren arteko alderaketa eginez, desoreka handiena haurren eta helduen kopuruetan izango genuke. Izan ere, gure azterketan haurren presentzia nabarmen handiagoa dela eta heldu gutxiago aztertu direla ikus dezakegu. Beste adin-taldee begira, unibertsoan baino gazte gutxiago eta adineko zertxobait gehiago behatu dira. Dena den, esanguratsua da unibertsoan adin-taldeen duten proportzio bera mantendu dela laginean ere. Horregatik, hiztunen profil nagusi hau kontuan hartzekoa izango da datuak aztertzerakoan, haur, guraso eta adinekoen arteko elkarrizketak izango direlako nagusi.

Sexu osaera

Bestetik, komenigarria da sexuaren arabera gure lagina nola osatzen den kontuan izatea honek ere emaitzen interpretazioan eragina izan baitezake.

2. GRAFIKOA: LAGINAREN ETA UNIBERTSOAREN OSAERA, SEXUAREN ARABERA. PASAIA, 2015 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Pasaiaiko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2015; eta unibertsorako: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011

Bigarren grafikoan ikus daitekeenez, Pasaiaiko biztanleriaren %47,8 gizonezkoak eta %52,2 emakumezkoak dira. Beraz, unibertsoan daudenak baino gizonezko gehiago (%48,1) eta emakumezko gutxiago (%51,9) behatu ditugula jakin behar dugu. Hala eta guztiz ere, behatutako solaskideen artean gizonezkoak baino emakume gehiago daudela kontuan izan behar da, unibertsoan bezala. Beraz, diferentzia txiki horiek ez dute ematen analisisan eragingo dutenik.

2. TAULA: LAGINAREN ETA UNIBERTSOAREN OSAERA, SEXUAREN ARABERA. PASAIA, 2015


	LAGINA (2015)		UNIBERTSOA (2011)	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)
Emakumezkoak	5.631	51,9	8.203	52,2
Gizonezkoak	5.215	48,1	7.504	47,8
GUZTIAK	10.846	100,0	15.707	100,0

Iturria: Laginerako: Soziolinguistika Klusterra, Pasaiaiko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2015; eta unibertsorako: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011

Zonaldeen pisua laginean

Azkenik, emaitzen interpretaziorako lagungarria izan daiteke zonalde bakoitzak laginean zer pisu hartu duen jakitea. Hau da, ibilbide bakoitzean jasotako elkarrizketa kopurua kontuan izatea komeni da eremu bakoitzak errealitate linguistiko ezberdina baitu.

3. GRAFIKOA: LAGINAREN OSAERA, ZONALDEEN PISUAREN ARABERA. PASAIA, 2015 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Pasaiaiko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2015

Hirugarren grafikoari begiratu, elkarrizketa gehien San Pedro Pobladon (%23,2) eta Pasai Antxon (%19,8) jaso ditudula ikus daiteke. Elkarrizketa gutxien, berriz, Donibane Meipin (%11,3) eta San Pedro Zaharrean (%13,9) bildu dira. Azkenik, tarteko pisua eskuratu dute Trintxerpek eta Donibane Bonantzak, bertan jasotako elkarrizketek laginaren %16,3 eta %15,5 osatzen baitute, hurrenez hurren.

Esanguratsua izan liteke ibilbideen pisuak erabileraren emaitzetan duen eragina, izan ere, zonalde euskaldunenak edota zonalde erdaldunenak laginean hartzen duten pisuak erabileraren emaitzak baldintza ditzakete. Horregatik, garrantzitsua da aldagai hau kontuan izatea. Aldagai honen eragia hobekiago aztertu ahal izango dugu 3. atalean “Erabileraren bilakaera Pasaian” aztertzen dugunean eta 5. atalean “Zonaldekako emaitzak” aztertzean.



3. TAULA: LAGINAREN OSAERA, IBILBIDEEN PISUAREN ARABERA. PASAIA, 2015

	LAGINA (2015)	
	Kop.	(%)
Donibane Bonantza	1.680	15,5
Donibane Meipi	1.221	11,3
San Pedro Zaharra	1.510	13,9
San Pedro (Poblado)	2.518	23,2
Pasai Antxo	2.148	19,8
Trintxerpe	1.769	16,3
GUZTIAK	10.846	100,0


Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Pasaiaiko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2015

2. ERABILERA PASAIAN, 2015. URTEAN: EMAITZA OROKORRA

2.1 Hamar elkarrizketetatik bi euskaraz Pasaian

Pasaia kaleetan entzundako 10 elkarrizketetatik bi, %20,2 zehatzago esateko, euskaraz izan dira. Gainerakoak gaztelaniaz izan dira nagusiki (%78,5), eta badira beste hizkuntza batzuetan gertatzen direnak ere (%1,3), 2015eko urrian egindako neurketaren arabera.

4. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA. PASAIA, 2015 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Pasaia hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2015.

Horixe da 2015eko urrian Pasaia herrian egindako neurketaren emaitza nagusia. Neurketa nola egin dugun (erabilitako metodoa, alegia) zehatz-mehatz azaldu dugu txosten honetako 2. atalean. Gogora dezagun, besterik gabe, 4.011 elkarrizketa behatu ditugula Pasaian, eta 10.846 lagun izan direla guztira elkarrizketa horietako solaskide. Ikerketa sozialean erabili ohi diren parametroetan, kopuru handia da hori 15.707 biztanle dituen herri batentzat². Termino estatistikoetan, esan dezakegu euskarazko elkarrizketen %20,2ko datu horri $\pm 0,91$ ko akats-tartea dagokiola, %95,0ko konfiantza mailan, unibertso osoaz hitz egiterakoan³. Oinarri sendoa dugu, beraz, herritarren hizkuntza-portaerak deskribatzeko.

² Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren zentsua, 2011.

³ Hizkuntzen erabileraren kale-neurketarako Soziolinguistika Klusterrak berriaz landutako eredu matematikoaren emaitza (ikus <http://www.soziolinguistika.eus/lagina/eskaera/kale-erabilera>).

4. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA. PASAIA, 2015 (%)

	Kop.	(%)
Euskaraz	2.188	20,2
Gaztelaniaz	8.512	78,5
Beste hizkuntzetan	146	1,3
GUZTIRA	10.846	100,0

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Pasaia-ko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2015.

2.2 Behatutako erabilera testuinguratzeko bi datu garrantzitsu: herritarren hizkuntza-gaitasuna eta hortik espero daitekeen erabilera maila

Ehuneko 20,2koa da, hortaz, euskararen erabilera⁴ Pasaian. Hori asko den edo gutxi den hausnartzeko, ezinbestekoa iruditzen zaigu, ezer baino lehen, beste bi datu aintzat hartzea: herrian euskaraz hitz egiteko gai direnen kopurua batetik (euskaldunen kopurua, alegia) eta euskaldun kopuru horretatik “espero daitekeen erabilera” bestetik. Jarraian aurkeztuko ditugu datuok.

Pasaiatarren hizkuntza-gaitasuna


EUSTATEk 2011. urtean egindako *Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikaren* arabera, biztanleriaren %38,2 euskalduna zen Pasaian. Beste zati batek (%28,2), euskalduna izan gabe, bazuen euskararen nolabaiteko ezagutza bat, ulermen mailan, behintzat, eta gainerako %33,6ak erdaldunak ziren⁵, euskara ulertu ez eta hitz egiten ere batere ez zekitenak. Horiek dira Pasaia-ko herritarren hizkuntza-gaitasunari buruz argitaratu diren daturik berrienak.

⁴ Berez, zentzu hertsian, “kale-erabileraz” hitz egin beharko genuke. Azalpena arintzearen ordea, “erabilera” terminoa erabiliko dugu. Izan kontuan ohar hau kontuan txosten osorako.

⁵ Kategoria horiek euskararen jakite mailari buruz egiten diren lau galderei (ulertzen duzu?, hitz egiten duzu?, irakurtzen duzu?, eta idazten duzu?) erantzundakoaren arabera lortu dira. Aukeran ematen diren erantzunak (ezer ez, nekez, eta ondo) konbinatuz, zazpi hiztun-kategoria sortzen dira, eta zazpi horiek bilduz, guk aurkeztutako hirurak.

	ULERTU	HITZ EGIN	IRAKURRI	IDATZI
EUSKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Ondo
	ERDI-ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Nekez
	ALFABETATUGABEAK	Ondo	Ondo	Ez
IA EUSKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ondo/ Nekez
	ALFABETATUGABEAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ez
	PASIBOAK	Ondo/ Nekez	Ez	Ez
ERDALDUNAK	Ez	Ez	Ez	Ez

5. GRAFIKOA. EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA. PASAIA, 2011 (%)



Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011

5. TAULA. EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA. PASAIA, 2011 (%)

	Kop.	(%)
Euskaldunak	5.993	38,2
Ia euskaldunak	4.435	28,2
Erdaldunak	5.279	33,6
GUZTIAK	15.707	100,0

Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011

Espero daitekeen euskararen erabilera

Zer-nolako harremana dago ezagutzaren eta erabileraren artean? Gure kasuan: Pasaian neurtutako erabilera (%20,2 euskaraz) zer da, handia edo txikia da, bertako herritarren artean euskaldunek osatzen duten tarte kontuan hartuta? (esan bezala, %38,2 ziren euskaldunak 2011n).

Galdera horri erantzuten laguntzeko, bere garaian J.L. Alvarez Enparantza *Txillardegik* eredu matematiko bat garatu zuen⁶. Eredu horretan, gune jakin batean dauden euskaldunen proportziotik abiatuta, euskararen erabilerari buruzko kalkulu bat egiten du. Zehazki, zera adierazten du eredu horrek: eremu jakin batean, bertan dauden euskaldun guztiak euskararekiko leial izanez gero (hots, euskalduna euskaldunarekin ahal duen guzti-guztietan

⁶ Gaiari sakontzeko ikus Alvarez Enparantza, J. L., Txillardegik, 2001, *Hacia una Socio-Lingüística Matemática*. Donostia: Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen; Isasi, X eta Iriarte, A., 1998, *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 28, 51-80 orr.



euskaraz mintzatuz gero), eta herritarren harremanak guztiz ausazkoak izanez gero (egoera isotropikoa), zenbatekoa izango litzatekeen euskararen erabilera. Kopuru horri “espero daitekeen erabilera” (edo “erabilera isotropikoa”) esan izan zaio; hots, baldintza teoriko horiek betez gero, erabilera zenbatekoa izango litzatekeen. Eta honako formularen bidez kalkulatu da:

$$P_B = m_B (w_2 e_x^2 + w_3 e_x^3 + w_4 e_x^4)$$

P_B = euskararen erabilera maila

m_B = euskararekiko leialtasuna

e_x = elebidunen proportzioa

w_2 = bikoteen pisua

w_3 = hirukoteen pisua

w_4 = laukoteen pisua

Aplika dezagun formula hori Pasaiaiko errealitatera.


$$P_B = 1,0 \cdot (0,60 \cdot 0,382^2 + 0,22 \cdot 0,382^3 + 0,18 \cdot 0,382^4) = 0,103 = \%10,3$$

Kalkuluak eginda, hortaz, Pasaian %10,3koa da baldintza horietan “espero daitekeen erabilera”. Hortaz, Pasaiaiko biztanleen arteko zorizko harreman posibleetan, eta euskaldunek euskaldunekin beti euskaraz jardunez gero, %10,3koa da espero daitekeen euskararen erabilera.

2.3 Euskararen erabilera Pasaian, hizkuntza-gaitasuna eta espero daitekeen erabilera aintzat hartuta

Jar ditzagun taula batean eta irudikatu ditzagun grafiko batean orain arte aipatu ditugun hiru datu nagusi horiek:

6. GRAFIKOA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, HORREN ARABERA ESPERO DAITEKEEN ERABILERA ETA EUSKARAREN KALE-ERABILIRA ERREALA. PASAIA, 2015 (%)



Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Pasaiaiko hizkuntza-erabilera kale-neurketa, 2015; EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011.

Bosgarren grafikoan eta 5. taulan ikus daitekeen bezala, euskararen erabilera apalagoa da Pasaian, ezagutza baino. Zehazki, elebidunen kopuruaren (%38,2) azpitik gelditzen da euskararen erabilera (%20,2). Lehen begiratu batean eman dezake euskara gutxi erabiltzen dela Pasaian, euskaraz hitz egiteko gai direnen kopuruarekin alderatuta, betiere. Baina erabilera eta ezagutzaren portzentajeak zuzenean alderatzen diren ondorioak, sarri, okerrak izaten dira, ia ezinezkoa baita erabilera- eta ezagutza-datuak bat etortzea.

6. TAULA. EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, HORREN ARABERA ESPERO DAITEKEEN ERABILERA ETA EUSKARAREN KALE-ERABILERA ERREALA. PASAIA, 2015 (%)

	(%)	Oinarria (kasu kopurua):	
Hizkuntza-gaitasuna 2011 (euskaldunen %a)	38,2	Hiztunak:	15.707
Erabilera erreala 2015	20,2	Behatutako solaskideak:	10.846
Espero daitekeen erabilera 2015 (kalkulua)	10,3	Hiztunak:	15.707

Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Pasaiaiko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2015; EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011.

Kontuan izan behar dugu ia kasu guztietan euskaldunak gaztelaniadunak ere badirela (euskaldun elebakarrak haurren artean soilik topa daitezke), eta hizkuntza bat zein bestea erabil dezaketela. Eta, jakina, euskaraz hitz egiteko gai ez den mintzakidearekin beti hitz egingo dute gaztelaniaz; mintzakide elebidunarekin, berriz, euskaraz edo gaztelaniaz hitz egin ahal izango dute. Beraz, ezinezkoa da euskararen erabilera ezagutzaren mailakoa izatea. Hori horrela izan dadin (erabilera eta ezagutza bat etor daitezzen), bi baldintza bete beharko lirateke: euskaldunek inolako harremanik ez izatea euskaldun ez direnekin, eta euskaldunen artean ere euskara besterik ez erabiltzea. Oro har, normala da bi portzentaje horien artean aldea agertzea, eta Pasaia ez da salbuespena.

Aintzat hartzeko beste erreferentzia baldintza isotropikoetan euskaldunek leial jokatzuz gero “espero daitekeen erabilera” dugu. Kopuru hori %10,3koa da Pasaian. Horren argitara, Pasaian euskararen erabilera errealak (%20,2) gainditzen duela baldintza isotropikoetan espero daitekeen erabilera.


Dena den, ezin dugu ahaztu honako hau erreferentzia teorikoa dela eta jakin badakigula harreman-sareak ez direla ausazkoak izaten. Hots, edonork ez duela edonorekin harremanik izaten (harreman gehiago dugu gure ingurukoekin eta adin berekoekin, adibidez, eta herriko zenbaitekin ez dugu inoiz harremanik izaten). Era berean, badakigu euskaldunen leialtasuna ez dela %100ekoa izaten eta euskara dakitenen arteko elkarrizketak ez direla beti euskaraz izaten. Horiek guztiak horrela izanik, erabilera erreala “espero zitekeena” baino handiagoa izateak, zeharka, zera adierazi nahiko luke: herriko euskaldunak nahiko trinkoturik bizi direla, eta euren arteko harreman-sarea nahiko bizia eta aberatsa dela. Horrela, egunerokoan euskaldunek erdaldunekin erlazio gutxiago izaki, euskararen erabilera estatistikoki espero den baino handiagoa da. Horrez gain, euskaldunen leialtasunaren nolabaiteko seinale ere bada datu hori.

3. ERABILERAREN BILAKAERA PASAIAN (1991-2015)

3.1 Euskararen erabilera egonkor mantendu da 90. hamarkadatik

Azken urteotan hainbat neurketa egin dira Pasaian hizkuntzen kale erabilera neurtzeko. 1990. hamarkadan Pasaiaiko Udalak urtero egin zituen behaketak. Ondoren, 2001etik aurrera, udalaren eskariz SEI Elkarteak eta Soziolinguistika Klusterrak hiru urtean behin errepikatu du ikerketa bera (2001ean, 2003an, 2006an, 2009an, 2012an eta 2015ean). Txosten honetan aztertu diren neurketa guztien datu-bilketarako diseinua homogeneoa da eta oinarri estatistiko sendoa dute, horregatik, emaitzen alderaketak egin ditzakegu eta erabilera bilakaera aztertu. Neurketen emaitza nagusiak ondorengo taulan eta grafikoan⁷ ikus daitezke.

7. GRAFIKOA: EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. PASAIA, 1991-2015. EUSKARAZ (%)



Iturriak: Pasaiaiko Udala, 1991tik 2000ra egindako Pasaiaiko Hizkuntza-erabilera kale-neurketak; SEI, 2001ean egindako Pasaiaiko Hizkuntza-erabilera kale neurketa; eta Soziolinguistika Klusterra, gainontzeko Pasaiaiko Hizkuntza-erabilera kale-neurketak (2003, 2006, 2009, 2012 eta 2015).

Horrela, esan daiteke lehen neurketa egin zenetik, 1991. urtean, 2015era bitartean euskararen kale-erabilera gorabeherak izan dituela. Ikus daitekeen bezala, euskararen erabilera

⁷ Modu argigarri batean adierazi nahian eta datu sendoagoa lortzeko, bi urteko multzoak osatu ditugu grafikoan osatzerakoan, hau da, 1991tik 2015erako bi urtekako datuen batz bestekoak kalkulatu dira.

beherantz zihoan 90. hamarkadan, %17,6 izatetik %12,3 izatera pasa zen. Ondorengo urteetan gora egin zuen eta hastapenetan behatutako erabilera-maila bera jaso zen. Beraz, gorabeherak gorabehera, erabilera %17 inguruan kokatzen da 90. hamarkadatik gaur arte.

7.TAULA: EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. PASAIA, 1991-2015. EUSKARAZ (%)

	Euskaraz (%)
1991	18,9
1992	16,2
1993	13,5
1994	17,6
1995	13,9
1996	12,8
1997	12,1
1998	12,4
1999	16,0
2000	14,8
2001	13,4
2003	17,3
2006	17,1
2009	17,5
2012	14,9
2015	20,2


Iturriak: Pasaiaiko Udala, 1991tik 2000ra egindako Pasaiaiko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketak; SEI, 2001ean egindako Pasaiaiko Hizkuntza-erabileraren kale neurketa; eta Soziolinguistika Klusterra, gainontzeko Pasaiaiko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketak (2003, 2006, 2009, 2012 eta 2015).

Azken bost neurketeki erreparatuta, 2003an, 2006an, eta 2009an ikusi genuen joera egonkor hori (%17 inguruan) hautsi egiten zen 2012ko beherakadarekin (%14,9), baina 2015ean gorakada esanguratsua ikusi dugu (%20,2). Horregatik, azken bi neurketetan izandako gorabehera horiei azalpen bat eman nahian, bi hipotesirekin egin dugu lan: batetik, turismoaren eragina aztertu nahi izan dugu, eta bestetik, zonaldeek laginean hartu duten pisua izan dugu kontuan.

Lehen hipotesiari dagokionez, 2012an zonalde turistikoek pisu handia hartu eta ohiko hizkuntza-erabilera erdalduntzea eragin ote zuen aztertu dugu. Horretarako, Donibane Bonantzan bildutako elkarrizketarik gabe Pasaiaiko euskararen erabilerak zer nolako bilakaera izan duen ikusi dugu (8. grafikoa), eta hipotesia baztertu behar izan dugu. Donibane Bonantza alde batera utzita ere erabilerak gora egin duenez, igoera batez ere bertakoen eskutik gertatu dela esan daitekeelako. Are gehiago, erabilera datu orokorrak altuagoak diren heinean (8. taula), Pasaian turismoak ez duela erdalduntzen esan behar dugu, turisten profila euskalduna dela alegia.



8. GRAFIKOA: EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA, DONIBANE BONANTZA KONTUAN IZAN GABE. PASAIA, 2001-2015 (%)



Iturria: SEI, 2001ean egindako Pasaia Hizkuntza-erabileraren kale neurketa; eta Soziolinguistika Klusterra, gainontzeko Pasaia Hizkuntza-erabileraren kale-neurketak (2003, 2006, 2009, 2012 eta 2015)

8.TAULA: EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA. PASAIA, 2001-2015 (EUSKARAZ, %)

	Erabilera orokorra	Donibane Bonantza gabeko erabilera
2001	13,4	10,6
2003	17,3	14,1
2006	17,1	15,8
2009	17,5	16,2
2012	14,9	12,6
2015	20,2	17,4

Iturria: SEI, 2001ean egindako Pasaia Hizkuntza-erabileraren kale neurketa; eta Soziolinguistika Klusterra, gainontzeko Pasaia Hizkuntza-erabileraren kale-neurketak (2003, 2006, 2009, 2012 eta 2015)

Bigarren hipotesizat honakoa definitu dugu: 2012ko neurketan zonalde erdaldunak⁸ gehiago neurtu izana izan zen erabileraren beherakada eragin zuen faktoreetako bat. Zonalde euskaldunago eta erdaldunagoek hartutako pisua 2015ean orekatuagoa izan da, baina egia da 2012ko neurketan zonalde erdaldunek pisu handiagoa izan zutela. Ondorioz, hipotesia baieztatu eta zonaldeen pisuak 2012ko beherakada horretan eragin zuela esan dezakegu.

⁸ "Zonaldekako emaitzak" izeneko 5. atalean gehiago sakonduko bada ere, zonaldekako bilakaera kontuan izanik, eta zonalde bakoitzeko erabilera irizpidetzat hartuz, erdaldunenak San Pedro Poblado eta Trintxerpe izan ohi dira; eta zonalde euskaldunenak, berriz, Donibane Bonantza eta Donibane Meipi; tartean, San Pedro Zaharra eta Pasai Antxo kokatuko lirateke.

9. TAULA: EUSKARAREN KALE ERABILERA, ZONALDEEN PISUAREN ARABERA. PASAIA, 2012-2015 (%)


	Laginean harturiko pisua 2012	Laginean harturiko pisua 2015
Zonalde euskaldunagoak (Donibane Bonantza eta Donibane Meipi)	22,1	26,7
Tarteko zonaldeak (San Pedro Zaharra eta Pasai Antxo)	32,9	33,7
Zonalde erdaldunagoak (San Pedro Poblado eta Trintxerpe)	45,0	39,5

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Pasaia Hizkuntza-erabilera kale-neurketak (2012 eta 2015)

3.2 Ezagutzaren bilakaera

Euskararen erabilera ulertzeko Pasaian interesgarria da aztertzea herritarren hizkuntza-gaitasunean izandako bilakaera. Ondorengo grafiko eta taulatan aurkezten ditugu herritarren hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak, hasi 1986. urtetik eta 2011. urtera bitartekoak.

9. GRAFIKOA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAREN BILAKAERA. PASAIA, 1986-2011 (%)



Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak eta Estatistikak, 1986, 1991, 1996, 2001, 2006, 2011.

Datuon irakurketaren arabera pasaiatarren hizkuntza-gaitasunak gora egin du 1986-2011 urte bitartean, izan ere, euskaldunak %23,1 izatetik %38,2ra igaro dira epe horretan. Ia euskaldunen taldearen pisuari dagokionez ere, gorakada suma daiteke hogeita bost urte hauetan, 1986ko %11,7tik 2011ko %28,2ra pasata. Azkenik, erdaldun elebazarren kopurua, aldi berean, %65,2tik %33,6ra jaitsi da 1986-2011 epealdian.



Aldaketak izan dira, hortaz, herritarren hizkuntza-gaitasunean. Laburtuz: hamabost puntuko igoera izan da euskaldunen ehunekoan eta ia hogeita hamabi puntuko jaitsiera izan da erdaldunen kopuruan.

10.TAULA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAREN BILAKAERA. PASAIA, 1986-2011 (%)

	1986 (kop.)	1991 (kop.)	1996 (kop.)	2001 (kop.)	2006 (kop.)	2011 (kop.)
Euskaldunak	4.449	4.848	5.383	5.221	5.883	5.993
Ia euskaldunak	2.248	4.002	3.714	3.655	3.735	4.435
Erdaldunak	12.546	9.191	7.906	6.717	5.898	5.279
GUZTIAK	19.243	18.041	17.003	15.593	15.516	15.707
	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)
Euskaldunak	23,1	26,9	31,7	33,5	37,9	38,2
Ia euskaldunak	11,7	22,2	21,8	23,4	24,1	28,2
Erdaldunak	65,2	50,9	46,5	43,1	38,0	33,6
GUZTIAK	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak eta Estatistikak 2001, 2006, 2011.

3.3 Hizkuntza-gaitasunaren eta euskararen erabileraren bilakaera alderatua

Aurkeztu ditugu Pasaian euskararen erabilera eta ezagutza nola aldatu diren adierazten duten datuak. Jarraian datorren grafikoan⁹, bi datu-serie horiek elkarren ondoan jarri ditugu, horrela ikus daiteke euskaldunen proportzioak izan duen gorakada ez dela erabileran islatu.

⁹ Modu argigarri batean adierazi nahian, erabilerari dagozkion datuekin bi urteko multzoak osatu ditugu grafiko osatzerakoan, hau da, 1991tik 2015erako bi urtekako datuen batz bestekoak kalkulatu dira.

10. GRAFIKOA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAREN eta KALEKO HIZKUNTZAREN ERABILERAREN ARTEKO ALDERAKETA. PASAIA, 1991-2015. EUSKARAZ (%)



Iturriak: ezagutzarako, EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eta Estatistikak 1986, 1991, 1996, 2001, 2006, 2011. Erabilerarako, Pasaia Udala, 1991tik 2000ra egindako Pasaia Hizkuntza-erabilera kale-neurketak; SEI, 2001ean egindako Pasaia Hizkuntza-erabilera kale-neurketa; eta Soziolinguistika Klusterra, gainontzeko Pasaia Hizkuntza-erabilera kale-neurketak (2003, 2006, 2009, 2012 eta 2015).

11. TAULA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAREN eta KALEKO HIZKUNTZAREN ERABILERAREN ARTEKO ALDERAKETA. PASAIA, 1991-2015. EUSKARAZ (%)

Erabilera	Gaitasuna	Erabilera	Gaitasuna
	1986		23,1
1991-1992	1991	17,6	26,9
1993-1994		15,6	
1995-1996	1996	13,4	31,7
1997-1998		12,3	
1999-2000		15,4	
2001-2003	2001	15,4	33,5
2006-2009	2006	17,3	37,9
	2011		38,2
2012-2015		17,6	

Iturriak: ezagutzarako, EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eta Estatistikak 1986, 1991, 1996, 2001, 2006, 2011. Erabilerarako, Pasaia Udala, 1991tik 2000ra egindako Pasaia Hizkuntza-erabilera kale-neurketak; SEI, 2001ean egindako Pasaia Hizkuntza-erabilera kale-neurketa; eta Soziolinguistika Klusterra, gainontzeko Pasaia Hizkuntza-erabilera kale-neurketak (2003, 2006, 2009, 2012 eta 2015).




4. EUSKAL HERRIKO, EAEKO, HERRIALDEKO DATUEKIKO ALDERAKETA ETA INGURUKO BESTE HERRI BATEKIN ALDERAKETA

4.1 Euskal Herriko, EAEko, Gipuzkoako, Donostialdeako eta Pasaiaiko datuekiko alderaketa

Ondorengo grafikoan, Euskal Herrian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Gipuzkoan eta Donostialdean 2011. urtean eginiko Hizkuntzen Kale-neurketako datuak alderatuko ditugu Pasaian 2015ean egindakoarekin.

11. GRAFIKOA: EUSKAL HERRIKO, EAEKO, GIPUZKOAKO, DONOSTIALDEAKO ETA PASAIAKO KALEKO HIZKUNTZAREN ERABILERAREN ARTEKO ALDERAKETA, 2011-2015. EUSKARAZ (%)



Iturriak: Soziolinguistika Klusterra; Pasaiaiko hizkuntzen kale-erabilera, 2015 eta Euskal Herriko hizkuntzen kale-erabileraren neurketa, 2011.



12.TAULA: EUSKAL HERRIKO, EAEKO, GIPUZKOAKO, DONOSTIALDEAKO ETA PASAIKO KALEKO HIZKUNTZAREN ERABILERAREN ARTEKO ALDERAKETA. PASAIA, 2015. EUSKARAZ (%)

Euskararen kale-erabilera 2011/2015	
Euskal Herria 2011	13,3
EAE 2011	16,1
Gipuzkoa 2011	32,7
Donostialdea 2011	20,3
Pasaia 2015	20,2


Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Pasaiaiko hizkuntzen kale-erabilera, 2015 eta Euskal Herriko hizkuntzen kale-erabilerearen neurketa, 2011.

Hamaikagarren grafikoak eta taulak erakusten dutenez, Pasaiaiko euskararen kale-erabilera altuagoa da Euskal Herrikoa (%13,3) eta EAEkoa (%16,1) baino. Gipuzkoako erabilera (%32,7) baino hamabi puntu baxuagoa bada ere, Donostialdea eskualdeko datuaren (%20,3) parekoa dela esan behar da.

4.2 Hizkuntza-gaitasuna, kaleko erabilera eta espero daitekeen erabilera, Euskal Herriko, EAEko, Gipuzkoako, Donostialdeako eta Pasaiaiko datuekiko alderaketa

Orain arte eskainitako datuak apur bat testuinguratzeko, kontuan har ditzagun eremu bakoitzeko herritarren hizkuntza-gaitasuna eta hizkuntza-gaitasun horren arabera “espero daitekeen erabilera”. Datu horiek honako grafiko honetan aurkezten dira.

12. GRAFIKOA: HIZKUNTZA-GAITASUNA, KALEKO ERABILERA ETA ESPERO DAITEKEENA. EUSKAL HERRIKO, EAEKO, GIPUZKOAKO, DONOSTIALDEAKO ETA PASAIAKO KALEKO HIZKUNTZAREN ERABILERAREN ARTEKO ALDERAKETA. PASAIA, 2011-2015 (%)



Iturria: EAE, Gipuzkoa, Donostialdea eta Pasaiaiko gaitasunetarako EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estadistika, 2011. Euskal Herriko, EAEko, Gipuzkoako eta Donostialdeako kale-erabilerarako Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen-erabilera neurketak, 2011; Pasaiaiko kale-erabileraren daturako, Kale-neurketa 2015. Espero daitekeen erabilerarako Soziolinguistika Klusterreko kalkuluak.

Ikus daitekeenez, Pasaian euskaldun gehixeago daude EAEn baino. Hortaz, “espero daitekeen erabilera” ere EAEn baino handiagoa da eta kalean behatutako erabilera-mailan joera bera gertatzen da.

Hiru aldagai hauek kontuan hartuta, Pasaiaiko euskararen egoeraren antzekotasun handienak dituen eremua Donostialdea litzateke hizkuntza-gaitasun gutxiago eta horren ondorioz espero daitekeen erabilera txikiagoa bada ere, erabilera parekoa baitu. Beraz, hiru aldagai horiek kontuan harturik, eskualdearekin alderatuz euskara gehiago erabiltzen dela ondoriozta daiteke.

Azkenik, Gipuzkoako datuei erreparatuz, hiru aldagaietako datuak Pasaiaikoenak baino altuagoak badira ere, erabileraren eta hizkuntza-gaitasunaren aldea eta erabileraren eta espero daitekeenaren aldea parekoak direla ikus daiteke. Ondorioz, alderaketa honen arabera, Pasaiaiko euskararen egoera Gipuzkoakoa baino “apalagoa” bada ere, Gipuzkoako joera berak sumatzen dira.

13. TAULA: HIZKUNTZA-GAITASUNA, KALEKO ERABILERA ETA ESPERO DAITEKEENA. EUSKAL HERRIKO, EAEKO, GIPUZKOAKO, DONOSTIALDEAKO ETA PASAIKO KALEKO HIZKUNTZAREN ERABILERAREN ARTEKO ALDERAKETA. PASAIA, 2011-2015 (%)


	Hizkuntza-gaitasuna 2011	Erabilera erreala 2011/2015	Espero daitekeen erabilera 2011
Euskal Herria		13,3	
EAE	37,2	16,1	9,8
Gipuzkoa	53,2	32,7	21,8
Donostialdea	43,4	20,3	13,7
Pasaia	38,2	20,2	10,3

Iturria: EAE, Gipuzkoa, Donostialdeako eta Pasaiaiko gaitasunetarako EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011. Euskal Herriko, EAEko, Gipuzkoako eta Donostialdeako kale-erabilerarako Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen-erabilera neurketak, 2011; Pasaiaiko kale-erabileraren daturako, Kale-neurketa 2015. Espero daitekeen erabilerarako Soziolinguistika Klusterreko kalkuluak..

4.3 Inguruko hainbat herrirekiko alderaketa

Datu horiek apur bat gehiago testuinguratzeko, Donostialdea eskualdean aurrez neurketa bereziak egin diren beste hiru udalerrirekin alderatu dugu Pasaiaiko erabilera orokorra: hain zuzen ere, Errenteria, Donostia eta Lezo.

13. GRAFIKOA: EZAGUTZA, ERABILERA ETA ESPERO DAITEKEEN ERABILERA DONOSTIALDEAKO HAINBAT UDALERRITAN, 2011/2014/2015. (%)



Iturriak: Gaitasunerako: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011. Kale erabilerarako: Soziolinguistika Klusterra, 2011ko Donostiako eta Errenteriako hizkuntzen-erabileraren neurketa, 2012ko Lezoko hizkuntzen-erabileraren neurketa eta 2015eko Pasaiaiko hizkuntzen-erabileraren neurketa. Espero daitekeen erabilerarako: Soziolinguistika Klusterraren kalkuluak.



Hizkuntza-gaitasunari eta erabilera errealari dagokionean, Pasaia Donostia eta Errenteriarekin datu antzekoak baditu ere, Lezon bestelako errealitate bat aurkitzen dugu. Lezon gaitasuna Pasaian baino ia 20 puntu goragokoa da, eta erabilerak ere 21 puntu egiten du gora. Beraz, euskaldunen kopurua handiagoa denean erabileraren portzentajea ere areagotu egiten dela ikus dezakegu. Zentzu honetan, logikoa da Errenterian euskararen ezagutza duten biztanle gutxiago egonik, erabilera ere Pasaian baino txikiagoa izatea. Donostiaren kasuan, ordea, gaitasuna Pasaian baino 2 puntu goragokoa bada ere, erabilera erreala 5 puntu txikiagoa da. Ondorioz, datu hauekin Pasaia erabileraren egoera Donostiakoa baino hobea dela esan daiteke.


Espero daitekeen erabilerari dagokionez, Pasaian gertatzen den bezala, Errenterian, Donostian eta Lezon ere espero daitekeena baino gehiago entzuten da euskara, baina lau udalerrietan erabilera errealaren eta espero daitezkeenaren aldeak desberdinak dira: esan bezala, Lezoren kasua berezia da beste hiru udalerriekin konparatzen badugu euskaldun kopuru gehiago baitu, eta era berean, espero daitekeenetik erabilera erreala ia 17 puntuko jauzia daukalako; Donostia eta Errenterian kasuan, espero daitekeena baino 3-4 puntu gehiago ditu euskararen erabilera erreala eta Pasaian 8 puntukoa da alde hori. Ondorioz, aurrez esandakoa baieztatuz, Pasaia erabileraren egoera Donostiakoa, eta Errenteriakoa, baino zertxobait hobea da.

4.4 Erabileraren bilakaeren alderaketa

Pasaia Udalak *euskararen kale-erabileraren neurketa* 1991tik urtero egin duenez eta ondoren hiru urtez behin egiten jarraitu denez, egin dezagun neurketa horiekin osatutako bilakaera grafikoa¹⁰, Euskal Herriko, EAEko, Gipuzkoako eta Donostialdeako datuekin alderatuz.

¹⁰ Modu argigarri batean adierazi nahian, Pasaia erabilerari dagozkion datuekin bi urteko multzoak osatu ditugu grafikoa osatzerakoan, hau da, 1991tik 2015erako bi urteko datuen batz bestekoak kalkulatu dira.

14. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. EUSKAL HERRIA, EAE, GIPUZKOA, DONOSTIALDEA, PASAIA. 1991-2015 EUSKARAZ (%)



Iturriak: Pasaiaarako: Pasaiaiko Udala, 1991tik 2000ra egindako Pasaiaiko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketak; SEI, 2001ean egindako Pasaiaiko Hizkuntza-erabileraren kale neurketa; eta Soziolinguistika Klusterra, gainontzeko Pasaiaiko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketak (2003, 2006, 2009, 2012 eta 2015). Gainerako datu guztietarako iturria: Euskal Herriko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 1993 eta 1997 (EKB), 2001 (SEI), 2006 eta 2011 (Soziolinguistika Klusterra).

14. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. EUSKAL HERRIA, EAE, GIPUZKOA, DONOSTIALDEA, PASAIA. 1991-2015 EUSKARAZ (%)

Pasaiaiko datuentzat	EH-EAE-Gip.-Donostialdea	Euskal Herria	EAE	Gipuzkoa	Donostialdea	Pasaia
1991-1992						17,6
1993-1994	1993	11,8	13,5	23,9	12,5	15,6
1995-1996						13,4
1997-1998	1997	13,0	15,2	27,6	16,9	12,3
1999-2000						15,4
2001-2003	2001	13,3	16,1	29,5	21,5	15,4
2006-2009	2006	13,7	16,8	32,1	21,3	17,3
	2011	13,3	16,7	32,7	20,3	
2012-2015						17,6

Iturriak: Pasaiaarako: Pasaiaiko Udala, 1991tik 2000ra egindako Pasaiaiko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketak; SEI, 2001ean egindako Pasaiaiko Hizkuntza-erabileraren kale neurketa; eta Soziolinguistika Klusterra, gainontzeko Pasaiaiko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketak (2003, 2006, 2009, 2012 eta 2015). Gainerako datu guztietarako iturria: Euskal Herriko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 1993 eta 1997 (EKB), 2001 (SEI), 2006 eta 2011 (Soziolinguistika Klusterra).



Goiko grafiko eta taulak erakusten dutenez, aztertutako lurralde eremu guztietan Pasaian ezik euskararen erabileraren gorakada ikus daiteke 1993 eta 2011 urte bitartean. Pasaian euskararen erabilerak bestelako joera batzuk izan dituela ikus daiteke, urte bitarte hori kontuan hartuz igoerarik ez baita gertatu.

Erabileraren igoera orokor horri 1990. hamarkadan erritmo biziagoa sumatzen zaio joera orokor moduan: 1993tik 2001era bitartean, Euskal Herri mailan, puntu bat eta erdiko igoera (%11,8-%13,3), EAE mailan ia hiru puntuko igoera (%13,5 eta %16,1 hurrenez hurren), Gipuzkoa mailan ia sei puntuko igoera (%23,9-%29,5) eta Donostialdean bederatzi puntuko igoera (%12,5-%21,5). Pasaian kasuan, berriz, 1991-1998 urte bitartean bost puntuko beherakada gertatu zen (%17,6-%12,3).

Ondorengo urteetan, 1997. urtetik 2011. urte bitartean, apenas aldatu da euskararen kale-erabilera Euskal Herri mailan, edota EAE mailan. Aldiz, Gipuzkoako datuak kontuan hartuz, hiru puntuko igoera gertatu dela ikus daiteke (2001eko %29,5etik 2011ko %32,7ra). Donostialdean, ordea, puntu bat eta erdiko beherakadatxo bat gertatu da (2001eko %21,5etik 2011ko %20,3ra). Testuinguru horretan, Pasaian berreskurapen joera bat gertatu da 1998tik 2015erako erabileraren bost puntuko igoerarekin (%12,3-%17,6).




5. ZONALDEKAKO EMAITZAK

5.1 Zonaldeen arabeko emaitzak

Herritarrek leku publikoetan zer hizkuntza erabiltzen duten neurtzea xede izanik, herriko bizitza soziala gertatzen den zonaldeetan egin dugu behaketa. Zonalde horiek zehazteko, udalerriko herritarren harreman-gune nagusiak non kokatzen diren zehaztu ohi da, eta behin zonalde horiek definitu ostean, zonalde bakoitzaren barruan zer ibilbideri jarraitu behar zaion erabaki, udaleko teknikariek elkarlanean. Pasaiaiko kasuan, sei eremutan banatu dugu udalerria. Emaitzak 14. taulan eta 15. grafikoan aurkezten ditugu, eta bertan ikus dezakegun bezala, dezente aldea dago eremuen artean (eremu horiek nola osatu diren jakiteko, ikus metodologiaren “Ibilbideak” atala): Donibane Meipin (euskaraz %35,6), Donibane Bonantzian (%35,4), Pasai Antxon (%23,5) eta San Pedro zaharrean (%21,6) udalerriko batz bestekoaren gainetik ibili da erabilera. Tarte handiarekin, batz bestekoaren azpitik, Trintxerpen (%5,7) eta San Pedro Poblodon (%9,0) neurtu da euskararen erabilera.

15. GRAFIKOA: EUSKARAREN KALE-ERABILERA, ZONALDEAREN ARABERA. PASAIA, 2015 (EUSKARAZ, %)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, 2015eko Pasaiaiko hizkuntzen kale-erabileraren neurketa.

15. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ZONALDEAREN ARABERA. PASAIA, 2015. (%)


	GUZTIAK	Trintxerpe	San Pedro (Zaharra)	San Pedro (Poblado)	Pasai Antxo	Donibane Meipi	Donibane Bonantza
Euskaraz	20,2	5,7	21,6	9,0	23,5	35,6	35,4
Gaztelaniaz	78,5	93,8	76,7	90,5	76,3	63,1	59,8
Beste hizkuntzetan	1,3	0,5	1,7	0,4	0,2	1,3	4,8
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	10.846	1.680	1.221	2.148	2.518	1.510	1.769

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, 2015eko Pasaiaiko hizkuntzen kale-erabileraren neurketa.

5.2 Zonaldeen arabeko bilakaera

2001. urtetik aurrerako Pasaian egindako hizkuntzen kale erabilera neurketetan ibilbide berak erabili dira behaketa egiteko. Beraz, ibilbide horietako zonaldekako bilakaera azter dezakegu. Dena den, datuak aurkeztu aurretik, nabarmendu nahi dugu zonaldekako datuak aldakorrik izan daitezkeela neurraldi batetik bestera, ez bakarrik errealitatea aldatu daitekeelako baizik eta zonalde batzuetan jasotako laginaren akats-tartea handia delako. Ondorengo grafikoan ikus daitezke bilakaera datuak:

16. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, ZONALDEEN ARABERA. PASAIA, 2015 (EUSKARAZ, %)



Iturria: SEI, 2001ean egindako Pasaiaiko Hizkuntza-erabileraren kale neurketa; eta Soziolinguistika Klusterra, gainontzeko Pasaiaiko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketak (2003, 2006, 2009, 2012 eta 2015).



2001-2015. urte bitartean bilakaerak gorabeherak jasan badituzte ere, zonalde guztietan gora egin du euskararen erabilerak. Salbuespena Donibane Meipi da, hain justu erabilerarik altuenak neurtu diren zonaldea, eta bertako euskararen erabilerak ia 10 puntuko jaitsiera izan du (2001eko %45,0tik 2015eko %35,6ra). Esan bezala, gainontzeko zonaldeetan erabilerak gora egin du, nabarmenena Pasai Antxoko erabileraren hamahiru puntu eta erdiko gorakada izan delarik (2001eko %10,0tik 2015eko 23,5era). Donibane Bonantza eta San Pedro Pobladoreen kasuan igoera 4 puntukoa izan da eta San Pedro Zaharran eta Trintxerpen puntu bat eta erdi ingurukoa izan da igoera.

Azken hiru urteei begiratzen badiegu, zonalde guztietan sumatu da gorakada, baina kasu honetan salbuespena San Pedro Zaharra izan da puntu bateko beherakada jasan duelarik erabilerak (2012ko %22,5tik 2015eko %21,6ra). Donibane Bonantzan, Pasai Antxon, eta bereziki San Pedro Poblador, izan dira gorakadarik nabarmenenak, sei puntu eta erdi ingurukoak hain zuzen ere. Igoera txikiagoa izan da Trintxerpen (puntu batekoa) eta Donibane Meipin egonkor mantendu dela esan daiteke (puntu erdiko aldea sumatu da soilik).

16. TAULA: HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, ZONALDEEN ARABERA. PASAIA, 2015

	Donibane Bonantza	Donibane Meipi	Pasai Antxo	San Pedro (Poblado)	San Pedro (Zaharra)	Trintxerpe
2001	31,0	45,0	10,0	5,0	19,0	4,0
2003	31,7	37,3	17,5	4,4	17,5	4,8
2006	24,5	38,0	19,3	9,3	18,7	4,5
2009	26,0	35,6	21,5	11,0	21,8	5,9
2012	29,1	35,2	17,3	2,3	22,5	4,8
2015	35,4	35,6	23,5	9,0	21,6	5,7


Iturria: SEI, 2001ean egindako Pasaiaiko Hizkuntza-erabileraren kale neurketa; eta Soziolinguistika Klusterra, gainontzeko Pasaiaiko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketak (2003, 2006, 2009, 2012 eta 2015).

6. HIZTUNEN EZAUGARRIEN ARABERAKO DATUAK

6.1 Sexuaren araberako emaitzak

Gizonezkoen eta emakumezkoen hizkuntza-portaeren artean alde handirik ez badago ere, emakumezkoen erabilera (%21,6) gizonezkoena baino handiagoa da (%18,7). Beheko irudian jaso ditugu bi datuak:

17. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. PASAIA, 2015 (EUSKARAZ, %)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Pasaiaiko hizkuntza-erabilera kale-neurketa, 2015.

17. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. PASAIA, 2015


	GUZTIAK	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Euskaraz	20,2	21,6	18,7
Gaztelaniaz	78,5	77,2	79,9
Beste hizkuntzetan	1,3	1,3	1,4
GUZTIRA	100,0	21,6	18,7
Oinarria (behatutako solaskideak)	10.846	5.631	5.215

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Pasaiaiko hizkuntza-erabilera kale-neurketa, 2015.

6.2 Sexuaren araberako bilakaera

Esan dugu 2015eko datuetan emakumezkoen erabilera zertxobait altuagoa dela gizonezkoenekin alderatuta. Atzera begiratuta, esku artean ditugun datuen arabera, egoera berbera dugu aurreko neurketetan ere. Esate baterako, duela hamalau urte, emakumezkoen erabilera gizonezkoena baino 0,7 altuagoa zen. Aldea txikia da, baina kontuan hartzekoa da sei neurketetan dugula gertaera bera: alde handirik ez baina, emakumezkoen artean euskararen erabilera beti da gizonezkoena baino altuagoa (16. Grafikoa).

18. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. PASAIA, 2001-2015. (EUSKARAZ, %)



Iturriak: SEI, 2001ean egindako Pasaiako Hizkuntza-erabileraren kale neurketa; eta Soziolinguistika Klusterra, gainontzeko Pasaiako Hizkuntza-erabileraren kale-neurketak (2003, 2006, 2009, 2012 eta 2015).

Are gehiago, adin-taldeen arabera ere, sexuaren eragina aztertzen badugu, guztietan errepikatzen da joera hori, emakumezkoen erabilera gizonezkoen aurretik dago. Alde txikiena, 65 urtetik gorako adinekoen artean topatu dugu. Gainera, azken bi neurketetan emakume eta gizonezkoen erabileraren arteko aldea oraindik eta nabariagoa izaten ari dela ikusi dugu. Joera aldaketa bat adierazi dezake horrek, izan ere, duela bi-hiru hamarkada egindako ikerketek diote zonalde euskaldunetan gizonezkoek emakumezkoek baino gehiago aritzen zirela euskaraz, eta gaur egun alderantzizko joera nagusitzen ari denaren zantzuak daude. Dena den, gaur egun bertan ezin dugu ondorio garbirik atera sexuaren araberako hizkuntza-portaerari dagokionean.

18. TAULA: HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. PASAIA, 2001-2015. (EUSKARAZ, %)


	GUZTIAK	Emakumezkoak	Gizonezkoak
2001	13,4	14,5	13,8
2003	17,4	14,2	12,6
2006	17,1	17,1	17,0
2009	17,5	17,6	17,5
2012	14,9	16,1	13,6
2015	20,2	21,6	18,7

Iturriak: SEI, 2001ean egindako Pasaia Hizkuntza-erabileraren kale neurketa; eta Soziolinguistika Klusterra, gainontzeko Pasaia Hizkuntza-erabileraren kale-neurketak (2003, 2006, 2009, 2012 eta 2015).

6.3 Adinaren araberako emaitzak

Alde esanguratsuak antzematen dira hizkuntza-portaeran adinaren arabera aztertuz gero. Haurrak (2-14 urte) dira euskara gehien erabiltzen dutenak, %39,4 izan baitira haurren artean euskaraz elkarrizketak egin dituztenak 2015eko neurketako datuen arabera. Euskara gutxien erabiltzen dutenak, berriz, adinekoak lirateke %8,7 izan baitira elkarrizketa euskaraz burutu dutenak. Gazteen eta helduen kasuan pareko erabilera neurtu dela esan genezake, %17,6 eta %18,8 dira euskaraz elkarrizketak izan dituztenak, hurrenez hurren.

19. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA ADINAREN ARABERA. PASAIA, 2015 (EUSKARAZ, %)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Pasaia hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2015.

19. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA ADINAREN ARABERA. PASAIA, 2015


	GUZTIAK	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
Euskaraz	20,2	39,4	17,6	18,8	8,7
Gaztelaniaz	78,5	60,0	81,7	79,5	90,0
Beste hizkuntzetan	1,3	0,5	0,8	1,7	1,3
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	10.846	2.034	649	5.584	2.579

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Pasaia hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2015.

Belaunaldi berriak etorkizunaren aitzindari eta aurrerapen diren heinean, haurren eta gazteen erabilera aurretik izatea da desiragarriena hizkuntzaren berreskurapena lortze aldera. Gaur egun, Euskal Herri mailan ere belaunaldi gazteak dira gehien hitz egiten dutenak, orain hogeita hamar urte ez bezala. Baina Pasaia kasuan, gazteek erabilera nahiko urria adierazi dute 2015ean.

Horrek guztiak, jakina, zerikusia du batzuen eta besteen hizkuntza-gaitasunarekin, belaunaldi berriak baitira euskaldunenak Euskal Herriko zonalde askotan, baita Pasaian bertan ere. Ondorengo taula eta grafiko hauetan ikus daitekeenez, adinari erreparatuta, badaude aldeak herritarren hizkuntza-gaitasunean.

20. GRAFIKOA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, ADINAREN ARABERA. PASAIA, 2011.



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011.

20. TAULA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, ADINAREN ARABERA. PASAIA, 2011.

	GUZTIAK	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
	(kop.)	(kop.)	(kop.)	(kop.)	(kop.)
Euskaldunak	5.993	1.481	993	2.722	797
Ia euskaldunak	4.435	204	157	3.343	731
Erdaldunak	5.279	65	137	3.007	2.070
GUZTIAK	15.707	1.750	1.287	9.072	3.598
	(%)	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
Euskaldunak	38,2	84,6	77,2	30,0	22,2
Ia euskaldunak	28,2	11,7	12,2	36,8	20,3
Erdaldunak	33,6	3,7	10,6	33,2	57,5
GUZTIAK	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika, 2011.

EUSTATen datuen arabera, Pasaian haurren eta gazteen artean hamarretik zortzi dira batz bestea euskaldunak (%84,6 eta %77,2, hurrenez hurren). Helduen eta adinekoen artean, berriz, hamarretik hiru (%30,0) eta bi (%22,2) dira euskaldunak, hurrenez hurren. Ondorioz, gaitasun gehiago duten heinean, oro har, belaunaldi berriek helduek eta adinekoek baino euskara gehiago erabiltzea litzateke logikoena. Dena den, 2015eko neurketako emaitzen arabera, Pasaian gazteen erabilera nahiko baxua da eta datu hau da kezkarrietakoa.


6.4 Adinaren araberako erabileraren bilakaera

Hamalau urteko epealdiari (2001-2015) erreparatzen badiogu, adin-talde guztietan izan du gorakada euskararen erabilerak, adinekoetan izan ezik (nahiko egonkor mantendu da). Gorakada handiena haurren erabilerak izan du: 15 puntukoa izan da, 2001eko %24,1etik 2015eko %39,4ra. Gazteen eta helduen erabilerak, berriz, zazpi eta zortzi puntuko igoera izan du, hurrenez hurren (%10,5etik %17,6ra eta %10,9tik %18,8ra).

Azken hiru urteko bilakaerari begiratu, gazteen erabilerak izan ezik, gainontzeko adin-taldeetan igoera sumatu da. Haurren kasuan, 2003-2012 urte bitarteko beheranzko joera gairitu eta 9 puntuko jauzi nabarmena egin du erabilerak (%30,4-%39,4). Helduen erabilerak ere 6 puntuko gorakada izan du (%13,1-%18,8); eta adinekoetan 3 puntuko igoera gertatu da %5,4tik %8,7ra. Beherakada bakarra gazteen kasuan gertatu da, ia 5 puntukoa hain zuzen ere (%22,2tik %17,6ra). Gazteen erabileraren 2009tik 2012ra bitarteko gorakadak azken urteetako erabileraren beherakada geldiarazi bazuen ere, beheranzko joera hartu du berriro.

Ondorengo grafikoan jaso ditugu adin-taldekako bilakaera datuak:

21. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA, ADINAREN ARABERA. PASAIA, 1991-2015 (EUSKARAZ, %)



Iturriak: SEI, 2001ean egindako Pasaiaiko Hizkuntza-erabileraren kale neurketa; eta Soziolinguistika Klusterra, gainontzeko Pasaiaiko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketak (2003, 2006, 2009, 2012 eta 2015).

21. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ADINAREN ARABERA. PASAIA, 1991-2015 (EUSKARAZ, %)

	GUZTIAK	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
2001	13,4	24,1	10,5	10,9	8,9
2003	17,4	35,5	20,9	14,2	7,7
2006	17,1	34,8	17,2	12,4	8,0
2009	17,5	32,8	15,6	14,7	7,6
2012	14,9	30,4	22,2	13,1	5,4
2015	20,2	39,4	17,6	18,8	8,7


Iturriak: SEI, 2001ean egindako Pasaiaiko Hizkuntza-erabileraren kale neurketa; eta Soziolinguistika Klusterra, gainontzeko Pasaiaiko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketak (2003, 2006, 2009, 2012 eta 2015).

7. EUSKARAREN ERABILERA ETA HAURREN PRESENTZIA

7.1 Haurren presentziaren arabera euskararen erabilera

Nola aldatzen da hizkuntzen erabilera solas-taldea era batekoa edo bestekoa izan? Zehazki, haurrak eta nagusiak (gazte, heldu zein adindu) elkarrekin nahasian aritu edo ez, horrek ba al du eraginik hizkuntza baten edo bestearen aldeko hautuan?

22. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SOLAS-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. PASAIA, 2015 (EUSKARAZ, %)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Pasaiako hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2015.

Datuak ikuspegi horretatik aztertuta, argi geratzen da zein den joera nagusia: hizkuntza-portaerak aldatu egiten dira solas-taldearen osakeraren arabera. Zehazki, haurrak bakarrik (nagusirik gabe) daudenean erabilera %33,1ekoa da euskaraz. Aldiz, nagusiek, euren artean (haurrik gabe) ari direnean, dezente gutxiago erabiltzen dute euskara, haurrekin ari direnean baino. Izan ere, nagusien arteko kale-elkarrizketen artean, hamar elkarrizketetatik batean hitz egiten dute euskaraz (%10,8). Haurrek eta helduek batera osatutako taldeetan, berriz, %39,4ra igozten da euskaraz entzuten den kopuru hori.

22. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SOLAS-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. PASAIA, 2015


	Haurrak bakarrik (nagusirik gabe)	Nagusiak bakarrik (haurrik gabe)	Haurrak eta nagusiak nahasian
Euskaraz	33,1	10,8	39,4
Gaztelaniaz	66,9	87,5	59,8
Beste hizkuntzetan	-	1,7	0,9
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	718	7.139	2.989

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Pasaiaiko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2015.

Ikus dezagun ordea haur eta helduen arteko taldeetan gertatzen den batzuen eta besteen hizkuntza-portaeretan diferentziarik dagoen. Hau da, talde horietan berdin jokatzeko dute haurrek eta helduek hitz egiten dutenean?

Ondorengo 23. grafiko eta 22. taulatan ikus daitezkeenez, alde nabarmena dago batzuen eta besteen arteko hizkuntza-jokabideetan.

23. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SOLAS-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. HIZKETAN ARI DENAREN ARABAERA. PASAIA, 2015 (EUSKARAZ, %)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Pasaiaiko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2015.

23. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SOLAS-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. PASAIA, 2015 (EUSKARAZ, %)

	Haurrak bakarrik (nagusirik gabe)	Nagusiak bakarrik (haurrik gabe)	Haurrak eta nagusiak nahasian	Nagusia hitz egiten	Haurra hitz egiten
Euskaraz	33,1	10,8	39,4	28,9	46,1
Gaztelaniaz	66,9	87,5	59,8	70,2	53,0
Beste hizkuntzetan	-	1,7	0,9	0,9	0,9
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	718	7.139	2.989	1.168	1.821

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Pasaiaiko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2015.


Esan bezala, nagusiek (gazteek, helduek eta adinekoek) hurrekin taldeetan daudenean gehiago hitz egiten dute euskaraz (%39,4) eurak bakarrik daudenean baino (%10,8). Are gehiago, adin-multzo denak nahasturik daudenean, haurra hitz egiten ari bada erabilera nabarmen altuagoa da (%46,1), nagusia hitz egiten ari denean baino (%28,9).

Laburtuz, beraz, esan daiteke, haurrak direla gehien erabiltzen dutenak euskara; helduekin daudenean lehenenik, edo eurak bakarrik daudenean bigarrenik. Erabilera baxuena haurrik gabeko elkarrizketetan entzun dugu.

7.2 Erabilera eta haurren presentzia: bilakaera

Bilakaera aztertuz, esan dezakegu solas-taldearen osaerak euskararen erabileran eragiten dituen gorabehera horiek ez direla berriak Pasaian, eta hamaika urte lehenago ere joera bera ageri zela; hots, nagusiek soilik beraien artean daudenean euskara gutxiago erabiltzen zuten eta dute hurrekin batera daudenean baino. Eta, neurketa gehienetan, haurrak euskaraz egiteko joera handiagoa dute nagusiekin elkartzen direnean, haurrak soilik beraien artean daudenean baino. Salbuespenak, 2006ko eta 2009ko neurketak dira; lehenengoan, haurren arteko elkarrizketetan euskararen erabilera handiagoa zen haur eta nagusien artekoetan baino, eta bigarreanean (2009), apenas dago alderik.

24. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, SOLAS TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. PASAIA, 2001-2015 (EUSKARAZ, %)



Iturriak: SEI, 2001ean egindako Pasaiaiko Hizkuntza-erabileraren kale neurketa; eta Soziolinguistika Klusterra, gainontzeko Pasaiaiko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketak (2003, 2006, 2009, 2012 eta 2015).

Bilakaera-datuei erreparatuz, esan dezakegu solas-taldearen arabera osatu daitezkeen elkarrizketen hiru modalitateetan euskararen erabilerak gora egin duela azken hiru urtetan. Haurren arteko erabilerari dagokionez, 2006-2012 bitarteko beherakada gairatu eta ia 9 puntu egin du gora. Era berean, haurren eta nagusien arteko elkarrizketetan, 2003-2006 urte bitarteko beherakadaren ostean, azken hiru neurketetan igoera gertatu zen eta, 2015eko neurketaren arabera, igoera handiagoa da (2006tik 11 puntu egin du gora). Azkenik, nagusien arteko elkarrizketetan, 2006tik egonkortasun egoeran bazegoen ere, hiru urte hauetan 3 puntuko gorakada izan du.

24. TAULA: HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, SOLAS TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. PASAIA, 2001-2015 (EUSKARAZ, %)


	Haurrak bakarrik (nagusirik gabe)	Nagusiak bakarrik (haurrik gabe)	Haurrak eta nagusiak nahasian	Nagusia hitz egiten	Haurra hitz egiten
2001	16,2	7,4	24,3	14,3	29,8
2003	30,4	11,3	36,1	16,7	51,5
2006	36,7	6,7	27,7	13,1	37,8
2009	29,7	7,2	28,7	11,6	40,7
2012	24,5	7,7	32,5	24,2	38,9
2015	33,1	10,8	39,4	28,9	46,1

Iturriak: SEI, 2001ean egindako Pasaiaiko Hizkuntza-erabileraren kale neurketa; eta Soziolinguistika Klusterra, gainontzeko Pasaiaiko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketak (2003, 2006, 2009, 2012 eta 2015).

8. NEURRALDIEN EMAITZAK

Metodologia atalean azaldu bezala, hainbat neurralditan egin dugu 2015eko *Pasaia*ko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa. 25. grafikoan eta 25. taulan, neurraldiz neurraldi jasotako datuak aurkeztuko ditugu. Ikus daitekeen bezala, badaude aldeak neurraldien emaitzetan.

25. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, NEURRALDIEN ARABERA. PASAIA, 2015 (EUSKARAZ, %)



*Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Pasaia*ko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2015.

25. grafikoan ikus daitekeen bezala, aldeak badaude neurraldiz neurraldi. Bestalde, ulergarria da hori neurraldi bakoitzeko lagin-akatsa handia baita.



25. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, NEURRALDIEN ARABERA. PASAIA, 2015

	Euskaraz		Gaztelaniaz		Beste hizk.		GUZT.	Oinarria (behatutako solaskideak)
Urriak 25, igandea, 12:00-14:00	158	18,9%	654	78,1%	25	3,0%	100,0%	837
Urriak 24, larunbata, 18:00-20:00	175	23,5%	556	74,6%	14	1,9%	100,0%	745
Urriak 24, larunbata, 11:00-13:00	170	20,8%	626	76,7%	20	2,5%	100,0%	816
Urriak 21, asteazkena, 18:00-20:00	231	23,5%	737	74,9%	16	1,6%	100,0%	984
Urriak 21, asteazkena, 11:00-13:00	159	27,9%	390	68,5%	20	3,5%	100,0%	569
Urriak 18, igandea, 12:00-14:00	321	20,8%	1.213	78,6%	10	0,6%	100,0%	1544
Urriak 17, larunbata, 18:00-20:00	320	18,3%	1.427	81,4%	5	0,3%	100,0%	1752
Urriak 17, larunbata, 11:00-13:00	274	19,6%	1.108	79,1%	18	1,3%	100,0%	1400
Urriak 14, asteazkena, 18:00-20:00	269	20,1%	1.071	79,9%	0	0,0%	100,0%	1340
Urriak 14, asteazkena, 11:00-13:00	111	12,9%	730	85,0%	18	2,1%	100,0%	859

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Pasaia-ko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2015.



9. DATU NAGUSIEN IRAKURKETA (LABURPENA)

Atal honetan, Pasaiako hizkuntzen kale-erabileraren neurketan jasotako **emaitza nagusiak** laburbilduko ditugu.

- Klean entzundako **hamar elkarrizketetatik bi euskaraz** izan dira (%20,2), eta ia zortzi gaztelaniaz (%78,5). Beste hizkuntza batzuetan %1,3 entzun dugu.
- 1991-1992 epealdian jaso genuen erabilera-maila bera jaso dugu 2012-2015ean: %17,6. Beraz, neurraldi batzuetan gorabeherak egon badira ere, 90. hamarkadatik hona euskararen kale-erabilera **egonkor** mantendu dela esan daiteke.
- **Emakumezkoek** gizonezkoek baino zertxobait **gehiago** hitz egiten dute euskaraz: gizonezkoen erabilera %18,7 izan da, eta emakumezkoena %21,6.
- **Haurrak** (2-14 urte) dira euskara **gehien** erabiltzen dutenak (%39,4). Euskara gutxien erabiltzen dutenak, berriz, adinekoak lirateke %8,7 izan baitira elkarrizketa euskaraz burutu dutenak. Gazteen eta helduen kasuan pareko erabilera neurtu dela esan genezake, %17,6 eta %18,8, hurrenez hurren. Nabarmentzekoa da gazteen erabilera-maila baxua.
- Hamalau urteko epealdiari (2001-2015) erreparatzen badiogu, **adin-talde guztietan** izan du **gorakada** euskararen erabilerak, **adinekoetan izan ezik** (nahiko egonkor mantendu da). Gorakada handiena haurren erabilerak izan du: 15 puntukoa izan da, 2001eko %24,1etik 2015eko %39,4ra. Gazteen eta helduen erabilerak, berriz, zazpi eta zortzi puntuko igoera izan du, hurrenez hurren (%10,5etik %17,6ra eta %10,9tik %18,8ra).
- **Haurrak bakarrik** (nagusirik gabe) daudenean **%33,1** da **euskarazko** erabilera. Aldiz, **nagusiek, euren artean** (haurrik gabe) ari direnean, **dezente gutxiago** erabiltzen dute euskara (%10,8). Haurrek eta helduek osatutako taldeetan, berriz, %39,4ra igotzen da erabilera.
- Amaitzeko, adin-taldeak nahasturik daudenean, **haurra hitz egiten** ari bada erabilera nabarmen **altuagoa** da (%46,1), nagusia hitz egiten ari denean baino (%28,9).

Andoainen, 2016ko urtarrila.